

Bergarako Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dauden 3 administrari plaza jabetzan, txanda librean erabiliz, betetzeko deialdi publikoa arautzen duten oinarriak

Lehen. Xedea eta lanpostuen ezaugarriak

Deialdiaren xedea hau da: txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez, Administrazio Orokorraren Eskalako Administrazioen Azpieskalakoak diren 3 plaza betetzea.

Hauek dira plazak: Kontuhartzailatzako administrari bat, Gizarte Zerbitzuetako administraria eta Idazkaritzako administraria.

Deialdiko lanpostuok derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna dute eta derrigortasun-data beteta dute.

Bergarako Udaleko langileen lan-harremanak arautzen dituen hitzarmenak jasotako Ordainsarien Taulako 11. mailari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte baloratuta dauden postuetako administrazioek (bitartean aldaketarik ez balego).

Plazen lan egutegia eta jarduna lan-beharrei egokituko zaizkie eta goiz eta arratsaldekoa edo/eta goizekoa izango da, plazen premien arabera.

Proposatutako izangaien azken kalifikazioak argitaratu aurretik Bergarako Udalean hutsik aitorzen diren administrari-plazen kopurua gehitu ahalko zaio deitutako plaza-kopuru honi; bai eta barne-promozioan deitutakoekin ere, deialdi hori hutsik geratzen bada. Kasu horietan, ez da nahitaezkoa izango eskabideak aurkezteko beste eperik hasterik.

Plazen balizko gehikuntza horiek, nolahi ere, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Bergarako Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Plazen egitekoak eta ardurak:

Orokorrean adierazita, helburu orokor moduan plazei dagokie *Bergarako Udalean administrari plaza eta kategoriari dagozkien ardura, lan eta helburuei* erantzutea, dagozkien arduradunek agindutakoari erantzutea eta, beste batzuen artean, honako hauek:

- Legeak eta Administrazio Elektronikoen araudiak herritarrentzat aitorzen dituen eskubide eta betebeharren aurrean, horiei erantzun, udal espedienteetan dagozkion tramiteak bideratu eta horretan trebatu eta eguneraketak gauzatu.
- Departamentuko espedienteak tramitatu.
- Departamentuko espedienteak definitzeko eta horiek elektronikoki tramitzeko behar den laguntza eman eta horiek gauzatzeko lanak egin.
- Departamentuko eta beste departamentuetako langileekin behar diren koordinazio lanak eta harremanak bideratu. Eta behar den elkar laguntza eta informazioa eman.
- Udal espedienteen tramitazioan parte aktiboa izan, horiek kontrolatu, bideratu eta bultzatu, departamentuetara bideratu dagozkien tramiteetarako, jarraipena egin...

- Udaleko web-orriaren jarraipena eta dagozkion eguneraketak eta aldaketak egin, orokorrean edo kokatutako departamentuari dagozkionak.
- Udal erabakiak tramitatu, hartutako erabakien jakinarazpenak bideratu eta jarraipena egin.
- Departamentuari dagozkion sarrerak identifikatu eta espedienteak hasi eta tramitazioari ekin, jarraipena egin eta itxi.
- Dokumentazioaren ardura: Departamentuan sortzen den dokumentazioa emandako irizpideen arabera gorde, antolatu eta departamentu kideentzat eskuragarri jarri.
- Arreta. Departamentuan kanal ezberdinetatik jasotako komunikazioez arduratu, bere eskumenen neurrian erantzun eta bideratu.
- Kategoria horri dagokion agindutako beste edozein zeregin, aurrez lan horretarako behar bezalako formazioa eta informazioa jaso ondoren.

Betebehar orokor horiez gain dituzten egiteko zehatzak deialdi honen oinarrien eranskinean jaso dira.

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa da.

Deialdia oinarri hauetan eta oro har aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera gauzatuko da.

Oposizioaldiko faseko ariketa kanporatzaileak gainditu dituzten hautagaiekin administrarien lan-poltsa osatuko da, eta zerrenda hori erabili ahal izango da lanpostu berdinetan edo antzekoetan behar ez-finkoak betetzeko, bai udalean, bai beste administrazioetan, betiere izangaiek hori espresuki onartu izan balute.

Lan-poltsa hau indarrean sartuko da udalak onartutako datan.

Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak

Hauta-probetan parte hartu nahi duen pertsona orok ondoren adierazitako betekizun orokorrak bete beharko ditu:

a) Europako Batasuneko estatu kideetakoren bateko herritarra izatea, edo Europako Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako tratatu nazioartekoen bertutez langileen zirkulazio librea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea, urriaren 30ean onartutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 57. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Halaber, parte hartu ahal izango dute espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbidez bananduak ez badaude, bai eta haren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere, era berean, zuzenbidez bananduak ez badaude, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, urte gehiagoko adina izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Batxilergo edo parekidea den titulu baten jabe izatea. Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

Parekoak kontsideratuko dira ekainaren 10eko EDU//163/2009 aginduan jasotakoak: LH-II edo Goi Mailako teknikari Espezialista.

d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.

f) 3. Hizkuntza Eskakizuna, derrigorrezkoa.

g) Deialdian parte hartzeko Bergarako Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izana. Azterketa egiteko tasa (20,65 euro) ordaintzeari dagokionean, beti transferentzia bidez egingo da eskabideak egiteko aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigorrez espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia adierazi beharko dira.

Transferentzia-agiria eskaerarekin batera aurkeztuko da.

Ordainketa eskaerak egiteko epean egin beharko da kontu korrante honetan:

KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569

Parte hartzeko, a), b), c), f), eta g), ataletan jasotako baldintzak betetzea egiaztatzen duten dokumentuak eskaera-orriarekin batera aurkeztuko dira.

Hautaketa-prozesuaren amaieran behin betiko zerrendan aukeratutzat agertzen diren izangaiek originalak aurkeztuko dituzte eta baita beste guztiak ere zortzigarren eta bederatzigarren oinarriari jarraituz.

Hirugarrena. Parte hartzeko eskabideak aurkeztea

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira, gehienez ere hogei (20) lan-eguneko epean –deialdiaren iragarpena ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.

Eredu ofizial hori eskuratu ahal izango da Bergarako Udaletxeko Bergararren Arreta Bulegoan (BAZ bulegoa, 8:00etatik 15:00etara bitartean, astelehenetik ostiralera) eta Udalaren webgunean (www.bergara.eus).

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

a) Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko Bigarren Oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.

b) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia; edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.
- Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskatutako tituluaren fotokopia.
- Ezinduei gordetako modalitatean parte hartzeko dagozkien agiriak ere aurkeztuko dira.
- Kasua hala bada, 3. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela edo euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren bat badaukala egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.

— Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-
eskubideengatik tasa ordaindu izanaren agiria eta, hala badagokio, hobaria justifikatzen
duen dokumentazioa ere.

c) Hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute Euskadiko Komunitate Autonomoko zein
hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen faseko ariketak.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira:

- Presentzialki B@Zean (Bergararren Arretarako Zerbitzuan; helbidea: San Martin plaza, 1. zk.a, 20570 Bergara) .
- Telematikoki, Bergarako udaleko web orrian: <https://www.bergara.eus/tramiteak>

Eskabideak, era berean, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako Administrazio
Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira (*urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearena*).

Izan ditzaketen egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo
interesatuak eskatuta.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak adierazi ez izana edo
oinarrietan adierazitakori jarraituz behar besteko informazioa ez duten agiriak.

Interesatuak agirien inguruko akats edo hutsuneren bat hautematen badu, zuzendu ahalko
du epaimahaiak emandako aurkezte-epea amaitu artean; behin epe hori bukatutakoan, ez
da onartuko.

Datu pertsonalak babestea

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak 2016ko apirilaren 27koak datu
pertsonalen tratamendu eta datu horien zirkulazioa libreari lotuta pertsona fisikoak
babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren
5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko
araudiak ezarritakoa betez, izangaiei izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten
baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren
kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa
kudeatzea ere.

Bergarako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko
legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen
direlako datuak, lege betebeharraren baitan tratatzen direlako, eta baita, datuak
beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua
beharrezkoa delako. Halaber, izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte
hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu
lagapen horren helburu bakar eta eksklusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu
eskaintzak egin ahal izatea, legea aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berariaz jasotzen
ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien
mugatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren
aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre Plaza, 1, 20570, Bergara
(Bergarako Udala).

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoan
erreklamazioa jarri ahal izango du izangaiak. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga, 71 3.

solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, Udalaren datuen babesaren ordezkariarekin jarri ahal izango da harremanetan, datuen tratamenduari lotutako edozein afera dela eta, honako posta helbidera mezua bidalita: dbo@bergara.eus.

Laugarrena. Izangaiak onartzea

Hautaketa-prozesuan onartua izateko, parte hartu ahal izateko eskatutako betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituela adierazi behar du izangaiak eskabidean. Adierazpen hori izangai bakoitzak bere ardurapean egingo du, eta onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi betekizun horiek betetzen dituela egiaztatutzat aitortzen zaionik. Beraz, Bergarako Udalak eskubidea du izangaia hautapen-prozesutik kanpo uzteko edozein unetan, izangaiak eskatzen zaizkion betekizunak betetzen dituela frogatzen ez badu.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta 1,5 hilabete igaro baino lehen, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko da alkatearen dekretu bidez. Zerrenda hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta webgunean (www.bergara.eus) argitaratuko da.

Ondoren, hamar (10) eguneko epea egongo da ez onartzeko izan diren akatsak edo gabeziak zuzentzeko edota esandako zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko.

Inork ere ezereen erreklamaziorik aurkeztu ez edo dei-egileak ezereen hutsik aurkitu ez badu, behin-behineko zerrenda behin betikoa bihurtuko da, eta halaxe jakinaraziko da, Bergarako Udalaren ebazpen baten bidez. Ebazpen hori, Bergarako Udaleko iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko da. Erreklamaziorik izaten bada, beste ebazpen baten bitartez onartu edo baztertuko dira, eta, era berean, behin betiko zerrenda ere onartuko da. Zerrenda hori aurreko paragrafoan esanda bezala argitaratuko da.

Behin betiko baztertutako izangaiek berraztertze-errekurtsoa aurkeztu diezaiokete ebazpena hartu duen Bergarako Udalari, ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hilabete bat igaro baino lehen, edota zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo eta han aurkeztu errekurtsoa, bi hilabete baino lehen.

Bosgarrena. Epaimahai kalifikatzailea

Bergarako Udalak Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatuko ditu. Epaimahai Kalifikatzailea arduratuko da hauta-proben garapenaz eta kalifikazioaz.

Osaera: Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondorengoak kontuan izanda eratuko da: urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa, eta ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen mahaiburuak, idazkariak eta kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari batek prozesu osoan eta beste batek euskararen probarako eta langileen ordezkariak izendatutako batek ere hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan.

Udalean presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

Abstentzia eta errefusatzeta. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

Eraketa eta lan-egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

Jarduketa-prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezingo da osatu, ezta jardun ere, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badiu, proposaturiko izangaiaren ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailerak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Lehiaketa-oposizioa epaituko duen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN nahiz Bergarako Udaleko iragarki oholean eta web-orrian argitaratuko dira izendapenak, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendarekin batera.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezkorekin kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, ordezkari horretarako izendatu den bokalordezkari du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezkorekin kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kidek hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hauta-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

Seigarrena. Deialdiak, jakinarazpenak eta informazioa

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udalaren iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da hautapen-prozesuko lehenengo ariketa egiteko deialdia, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendarekin batera.

Deialdi bakoitzeko gainerako komunikazioak eta jakinarazpenak Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udaleko webgunean argitaratuko dira.

Webgunean ondorengo hauek kontsultatu ahal izango dira, besteak beste: deialdiko oinarriak; onartuen eta baztertuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak; ariketen egunak; emandako kalifikazioak...

Zazpigarrena. Hautaketa-prozesuaren garapena

Hautaketa-prozesuak bi atal izango ditu: oposizioaldia eta lehiaketaldia.

7.1 Oposizioaldia

Oposizioaldian **gehienez 100 puntu** lortu ahal izango dira, eta honako ariketek osatuko dute:

7.1.1.- Ariketak. Nahitaezkoak eta baztertzaileak.

— Lehenengo ariketa. Izaera teorikoa duena:

Oinarri hauen **I. eranskinean** jasotako gai-zerrendaren edukiari buruzko galderak eta udaleko web-orrian **Zerbikat-en jasotako** udal espedienteen tramiteen inguruko galderak idatziz erantzun beharko dira.

Epaimahaiaren irizpidearen esku dago azterketa-mota aukeratzea; azterketan, aukerako erantzunak ematen dituzten galdera-sortak izan daitezke, edo aipatutako gai-zerrendako gaien inguruan galdera edo gai zehatzak aukeratu eta idatziz garatzekoak izan daitezke.

Ariketa honetan, gehienez, hogeit (20) puntu lortuko dira. Gutxienez, hamar (10) puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

— Bigarren ariketa. Teoriko/Praktikoa.

Oinarri hauei atxikitako gai-zerrendaren (**I. eranskina**) eta lehen oinarrian jasotako plaza hauen funtzioen eta eginkizunen inguruko izaera teoriko/praktikoa duten ariketa(k) egitean datza. Atal bat edo gehiago izan ditzake eta ariketa bat ahoz

azaltzea edo defendatzea ere eskatu ahal izango zaie izangaiei, horrela erabakiko balu epaimahaiak.

Ariketa honen barruan Informatika-ezagupenak neurtzeko froga(k) egitea ere erabaki dezake epaimahaiak. Windows 10 bertsioan honako aplikazio hauen erabileraren ezagutza neurtzeko frogak izango dira (denak edo horietako bat edo batzuk izango dira):

- Word: 10 bertsioa
- Kalkulu-orria (excel)

Epaimahaiaren irizpidearen esku dago proben kopurua eta mota aukeratzea.

Ariketari ekin aurretik aditzera emango du epaimahaiak zein den gainditzeko erabiliko den irizpidea.

Ariketa honetan, gehienez, berrogei (40) puntu lortuko dira. Gutxienez hogeita bost (25) puntu lortu beharko badira ere, Epaimahaiak erabakiko du jarritako ariketa bakoitzean lortu beharreko gutxienezko puntu dagoen ere ariketa gainditzeko.

— Hirugarren ariketa. Euskarako azterketa edo probak. Gai edo Ez gai baloratuko da.

Euskararen ezagutza egiaztatzeko probak egingo dira. Derrigorrezkoak eta baztertzaileak hautagai guztientzat.

3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egingo dira.

Ez dute euskarako azterketa egin beharrik izango euskara-maila egiaztatzeko azterketak egin baino lehen Epaimahaiari 3. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria aurkezten diotenek.

Honako hauek dira euskara-tituluen arteko baliokidetzak jasotzen duten araudiak: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena; eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena.

3. hizkuntza-eskakizuna izatea honela ziurtatu ahalko da:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria, 3. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat egiaztatu izana frogatzen duena.
- Baliokide diren beste ziurtagiriak, betiere euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko indarrean dagoen araudiak diotenaren arabera.

3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak Bergarako udalerrian edota HAEE-IVAPek horretarako zehaztutako beste edozein tokitan egin ahalko dira. Nolanahi ere, proba horiek egitearen ondorioz hautagaiei sor zaizkiekeen joan-etorriko gastuak, mantenukoak eta abar beraien kontura izango dira.

— Laugarren ariketa. Trebetasun edota nortasun probak, lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko proba. Derrigorrezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesiografikoari eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzeraz bideraturiko gaitasun eta nortasunari buruzko zenbait proba psikotekniko egitea izango da. Probek elkarriketa ere izan dezakete.

Laugarren ariketa honi berrogei (40) puntu emango zaizkio gehienez. Gainditzeko ariketa hau osatuko duten proba bakoitzak duen puntuazioaren gutxieneko bat lortu beharko dira eta/edo hogeita bost (25) puntu guztira. Epaimahaiak jakitera emango du bakoitzaren gutxienekoa zenbatekoa den azterketa egunean bertan.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta eskabidearekin hala adierazi dutenei, gainerako parte hartzaileen aukera berberak izan ditzaten, betiere hori eginda probaren edukia hutsaltzen ez bada eta eskatutako gaitasun-maila jaisten edo kaltetzen ez bada.

7.1.2.- Ariketen inguruko prozedura-oharrak

Hautaketa-probak ez dira hasiko eskabideak aurkezteko epea bukatu eta 90 egun pasatu arte behintzat.

Lehenengo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udaleko webgunean argitaratuko dira. Hortik aurrerako ariketak egiteko iragarkiak Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako Udaleko webgunean argitaratuko dira.

Ariketa bat bukatu eta hurrengo hasi arte 72 ordu behintzat pasa behar dira, eta orokorrean ez da 45 egun natural baino gehiago atzeratuko (Ohartarazita salbuespenak egon daitezkeela, eta jakitera emango direla behar besteko aurrerapenekin; adibidez, tartean opor garairen bat gertatuko balitz edo gaindi ezinezko arrazoiren bat suertatuko balitz...).

Hala ere, Epaimahaiak, nahi izanez gero, ariketa bat baino gehiago egun berean egitea erabaki dezake, eta ariketen hurrenkera aldatzeko eskubidea ere badu. Horrelakoetan, aurreko ariketa gainditu dutenen ariketak baino ez dira ebaluatuko.

Izangai bakoitzak eskabide-orrian adierazi beharko du oposizio-faseko probak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen, horretarako aukera ematen diren ariketei begira.

Izangaiei deialdi bakarra egingo diete ariketa bakoitzerako. Epaimahaiak ariketak egiteko ezarritako lekuan, egunean eta orduan azaltzen ez diren izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geldituko dira behin betiko, baita ezinbesteko arrazoiak izanda ere.

Epaimahai Kalifikatzaileak izangaiei edozein unetan eska diezaieke identifika daitezen. Beraz, izangaiek, ariketak egitera datozenean, Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo gidabaimena ekarri beharko dute; edo, atzerritarra izanez gero, dokumentu horien baliokideren bat.

Oposizioaldiko ariketa bakoitza bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak izangaiek lortutako behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu. Argitaratze horren egunaren biharamunetik hasita, izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute beren ariketa horri buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori bukatutakoan, aurkeztu diren erreklamazioak –aurkeztu badira– ebatzi eta ariketan izandako behin betiko emaitzak argitaratuko ditu epaimahaiak. Era berean, interesdun bakoitzari bere erreklamazioaren ebazpen arrazoituaren jakinarazpen pertsonala bidali ahal izango dio.

7.2.-Lehiaketa-aldia

Lehiaketa-aldia ez da baztertzaila izango, eta aldi horretan lortutako puntuak ezin izango dira kontuan hartu oposizioaldiko probak gainditzeko.

Azterketen fasea gainditu duten hautagaiak merezimenduen edo lehiaketaldiko fasera igaroko dira.

Izangaiek eskaera-orrian adierazitako merituetan oinarritutako balorazioa egingo du epaimahaiak eta horretarako horien inguruko agiriak aurkezteko epea emango du, web-orrian argitara emango den oharren bidez. Ohar hori Bigarren Ariketaren (Teoriko/Praktikoa) emaitzaren iragarkiarekin batera argitara emango du.

Lehiaketaldian **gehienez ere 45 puntu eta ez gehiago** lortu ahal izango dira.

Fase honetan, Epaimahai Kalifikatzaileak eskabidean adieraziak izan diren hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko ditu, baldin Epaimahaiak Bergarako Udaleko web-orrian argitara emango duen oharrean emandako epean eta oinarri honetan jasotakoari jarraituz behar bezala akreditatuak izan badira, eta betiere eskaerak aurkezteko azken eguna erreferentziatzat hartuko da.

Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak honako hauek izan beharko dira gutxienez, ezinbestekotzat izanik agiri mota eta edukiari dagokionean:

1.- Lan edo zerbitzuen esperientziari dagokionean:

Egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzu horiek bete diren Administrazioak emandako agiriaren bitartez egiaztatuko dira, horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak.

Bergarako Udelean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren espedientearen ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.

Enpresa pribatuan inoren kontura egindako lana egiaztatzeko, enpresa-ziurtagiriak eta lan-kontratuak aurkeztu beharko dira. Egiaztagirietan, betetako funtzioak zehaztu beharko dira.

Kasu guztietan Gizarte Segurantzak emandako laneko bizitzaren agiria ere aurkeztuko da, bai administrazioan eta bai enpresa pribatuan egindako lana ziurtatutzat kontsideratu dadin.

2.- Prestakuntza. Erakunde ofizialek emandako ikastaroak edo haiek homologatutakoak izango dira eta bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan jaso beharko dute baloratuak izateko.

Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

Oharra: Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu ez diren merezimenduak ezta epaimahaiak emandako epean entregatu eta goian aipatutako dokumentuekin egiaztatu ez direnak ere.

Honako hauek dira merituen kontsiderazioa izanik kontuan izango direnak:

Zerbitzuen edo Lan esperientzia:

—Toki administrazio batean Gizarte Zerbitzuetan, Idazkaritza, Kontuhartzailetza departamentuetan edo Arreta zerbitzu integral baten atxikitako funtzioekin egindako administrari edo administrari laguntzaile lana: gehienez ere **18 puntu** arte eta hileko 0,125 puntu.

— Toki administrazio batean aurreko atalean jaso diren departamentua ez den batean edo beste administrazio publiko batean administrari-lanetan edo administrari laguntzailearen kategoriarekin egindako beste lana: gehienez ere **14 puntu** arte eta hileko 0,0625 puntu.

— Enpresa pribatuan administrari-lanetan edo administrari laguntzailearen kategoriarekin egindako lana: gehienez ere **6 puntu** arte eta hileko 0,0625 puntu

Kontratu edo izendapen bakoitzean gutxienez lau (4) hilabeteko lan-esperientzia jarraitua izan beharko du baloratua izateko. Jarraitua ulertuko da lan berdinerako edo lanpostu berdinerako lan-kontratuen artean 15 egun baino gutxiagoko etenaldia suertatzen bada. Kasu honetan denak izango dira kontuan (4 hilabetera iristen badira).

Formakuntzako edo praktikei dagokien edozein lan-kontratu lan-eskarmentu moduan ez da kontsideratuko eta ez da zenbatuko.

—Formazio osagarria: Lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarritzat jotzen den formazio osagarria baloratuko da (ikastaroak eta formazio akademikoa), gehienez ere **18 puntu** arte.

1.- Ikastaroak. Ikastaroei dagokienean Administrazio publikoek antolatutakoak edo homologatutakoak diren formazio eta ikastaroak izango dira, eta bakoitzaren formazio-ekintzen iraupena ordutan jaso beharko dute baloratuak izateko.

Iraupena ordutan jasotzen ez dutenak ez dira kontuan izango.

2017. urtetik aurrera egindakoak izan beharko dira eta gutxienez 15 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko. 15 ordukoari 0,15 puntu emango zaio, eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira.

Horren guztiaren eraginetarako baloratuko direnak eta bakoitzean lortu daitekeen gehienekoa honako hauek izango dira:

- 1.- Udaletako tasa, kontribuzio berezi eta zergen eta errenta eta ordainarazpen lanen inguruko formazioa osagarria, 3 puntu arte.
- 2.- Herriarren arretaren inguruko formazioa, 3 puntu arte.
- 3.- Kontratazioa, biztanleen errolda eta udalen zerbitzuen eta horien kudeaketaren inguruko formazio edo ikastaroak, 2 puntu arte.
- 4.- Laneko Arriskuen Prebentzioaren inguruko formazio edo ikastaroak, 2 puntu arte.
- 5.- Espediente administratiboen tramitazio-lanekin, administrazio elektronikoarekin, espedienteen artxibatzearekin eta, orokorrean, administrazio lokaleko espedienteen tramitazio-lanekin zerikusi zuzena duten beste ikastaroak, 2 puntu arte.

Nolanahi ere, ikastaroko gehienez 1,5 puntu emango da.

2.- Formazio akademikoari dagokionean, prestakuntza hauek baino ez dira baloratuko:

- Administrazio Kudeaketako teknikariaren (administrariaren edo administrari laguntzailearen) erdi mailako edo goi mailako lanbide-heziketako titulazioa izatea (ez denean deialdian parte hartzeko erabili den titulu edo agiri bakarra):

1.- Goi mailakoa: 1 puntu

2.- Erdi mailakoa: 0,50 puntu

Goi mailakoa puntuatzen denean ez da erdi mailakoa puntuatuko.

- Unibertsitateko gradu edo goi mailako edo erdi mailako titulazioa izatea (ADE, Zuzenbidea, Zientzia Politikoak eta Kudeaketa Publikoa, Enpresagintza eta Administrazioaren Antolakuntza eta Kudeaketa Publikoa) edo arlo horiekin lotutako graduondoko beste unibertsitate-tituluak: 1 puntu titulu bakoitzeko eta gehienez ere 2 puntu arte.
 - Ikasketa bereko goi mailakoa edo gradua baloratzen bada ez da erdi mailakoa baloratuko.

Baloratze-prozesua:

Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduak balioztatuko ditu eta lehiaketa-aldiko behin-behineko kalifikazioak argitaratuko ditu, erreklamazioetarako epearekin batera.

Epe hori bukatutakoan, aurkeztutako erreklamazio eta zuzenketak aztertuko ditu epaimahaiak, eta gero lehiaketa-aldiko behin betiko emaitzak argitaratuko ditu. Era berean, interesdun bakoitzari bere erreklamazioaren ebazpen arrazoituaren jakinarazpen pertsonala bidali ahal izango dio

Zortzigarrena. Epaimahai kalifikatzailearen proposamena

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa honela kalkulatu da: oposizioaldian ateratako puntuak gehi lehiaketa-aldian ateratakoak.

Azken kalifikazioan berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek beteko dira, hurrenez hurren:

1. Ariketa psikoteknikoan puntuaziorik altuena izatea.
2. Oposizioaldi osoan puntuaziorik handiena lortzea.
3. Ariketa praktikoan puntuaziorik altuena lortzea.
4. Hala ere berdinketa hautsi ezean, zozketaz egingo da. Zozketara pertsona interesatuak joan ahal izango dira.

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen ebaluazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarki-taulan eta Udalaren webgunean (www.bergara.eus) emango ditu argitara oposizio-lehiaketa gaitutako hautagaien izenak, lortu dituzten puntuak arabera gehienetik gutxienekora ordenatuak, eta puntu gehien lortu dituenak izendatzeko proposamena egingo du. Baldin eta, Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz, deialdira aurkezturiko hautagaien artean ez bada lanpostuan jarduteko gutxieneko kondizioak betetzen dituenik, esleitu gabe uztea erabaki ahalko du.

Epaimahai Kalifikatzaileak, ezein kasutan ere, ez ditu deialdian iragarritako plazak baino hautagai gehiago proposatuko. Hala ere, Bergarako Udaleko pertsonalean gerta daitezkeen hutsuneak aldi batez bete ahal izateko, izaera kanporatzaileko ariketak gaitutako dituzten

hautagaien zerrenda erantsi beharko dio proposamenari, lortutako puntuen arabera ordenatua.

Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko dio akta, behar den izendapena egin dezan.

Bederatzigarrena. Betebeharrak betetzea egiaztatzea

9.1. Aukeratutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratutakoan, 20 egun naturaleko epea zabalduko da (argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita) aukeratutako pertsona horiek Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu ditzaten hautaketa-prozesuan parte hartzeko beharrezkoak ziren baldintzak egiaztatzeko balio duten dokumentuak (originalak edo benetako kopiak). Dokumentu hauek, hain zuzen:

1. Nortasun Agiri Nazionala edo, kasuan kasu, pasaportearen edo nazionalitatea egiaztatzeko beste edozein agiri. Aurkeztuko den agiriak indarrean egon behar du.

Hautaketa-probetan espainiarren edo Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako nazionalen ezkontide direlako edo ezkontidearen seme-alaba direlako parte hartu duten hautagaiek aurkeztu egin beharko dituzte ahaidetasun-lotura egon badagoela egiaztatzen duten agiriak, agintari eskudunek eginak. Horrez gain, lotura hori duen ahaide espainiarraren edo Europar Batasuneko nazionalaren zinpeko aitorpena edo promesa ere aurkeztu behar dute. Aitorpen horretan, ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela eta, kasuan kasu, hautagaia ezkontidearen kontura bizi dela edo bere kargu dagoela adierazi behar du espainiarrak edo Europar Batasuneko nazionalak.

2. Egiaztagiria medikoa, Bergarako Udaleko Lan Osasuneko Zerbitzuak emandakoa. Han, argi adierazi beharko da pertsona horrek zereginak gauzatzeko gaitasun funtzionala duela eta ez duela zeregin horretan jardutea galaraziko liokeen inolako gaixotasun edo muga fisiko zein psikikorik.

3. Zinpeko aitorpena, non jasoko den diziiplina-espedita batez edozein administrazio publiko edo autonomia erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez dela izan, ezta ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna erabatekoa edo berezia duenik ere, funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko edo, langile lan-kontratadunen kasuan, berezia edo desgaitua izan zitekeen lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzeko. Era berean, ezintasunarekin edo bateraezintasunarekin lotutako legeko arrazoirik ez duela egiaztatzeko zinpeko aitorpena edo promesa ere aurkeztu beharko da.

Espainiar herritartasuna ez duenak, berriz, gaitasungabetuta edo pareko egoeraren batean ez dagoela eta bere Estatuan enplegu publikoan jardutea galarazten dion diziiplina zigorrik edo antzekorik jaso ez duela egiaztatzeko, horren zinpeko aitorpena edo promesa aurkeztu beharko du.

4. Eskatutako titulua, edo titulua egiteko tasak ordaindu direla erakusten duen egiaztagiria.

Hautagaiek atzerrian eskuratutako titulua badute, titulu hori homologatuta edo baliokidetu dagoela ziurtatuko duen egiaztagiria aurkeztu behar dute.

5. Eskatutako berriazko baldintzak betetzen dituela frogatzeko egiaztagiria.

Halabeharrezko arrazoirik izan gabe, hautagaiek ez badituzte aipatutako agiriak adierazitako epean aurkeztu edo eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen, hautaketa-prozesuan parte hartzetik izan lituzketen eskubide guztiak galduko dituzte, eta haien jarduketa guztiak baliorik gabe geratuko dira. Eta, beraz, ezin izango dira izendatu. Horretaz gain, parte hartzeko eskaeretan datu faltsuak ematearen gaineko erantzukizuna ere izan dezakete.

Hamargarrena. Praktiketako eta prestakuntzako epealdia, eta izendapena

Organo eskudunak praktiketako funtzionarioak izendatuko ditu Epaimahai Kalifikatzaileak proposaturiko hautagaiak, betiere aurreko oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu dituztenean.

Lanpostuak esleitzea: Eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten izangaien artean esleitu dira lanpostuak, izangai bakoitzaren lehentasun-ordena eta haiek adierazitako lehentasunak kontuan hartuta.

Praktiketako epealdiaren iraupena hamabi (12) hilabetekoa izango da.

Denbora hori efektiboki burutu beharko du, eta, gainera, izaera kanporatzailea izango du.

Denboraldi hori amaitu aurretik, probaldian diharduen funtzionarioari buruzko txostena egingo dute gainera daukaten hurrengo buruek, eta erakutsi dituen gaitasun hauek hartuko dituzte kontuan txosten horretan:

- Lanerako gaitasuna eta errendimendu profesionala.
- Erantzukizun eta eraginkortasun sena.
- Ikasteko interesa, gogoia eta ekimena.
- Hurrengo arlo hauek oinarri izanda azaldutako gaitasuna:
 - Lan taldean integratzea.
 - Barne eta kanpo harremanetan egokitzea.

Hautagaiak praktiketako eta prestakuntzako epealdia gaitzen badu, karrerako funtzionario izendatua izango da.

Praktikaldia gaitzen ez duten hautagaiek karrerako funtzionario izendatzeko izan zitezkeen eskubideak galduko dituzte. Hori Alkateak erabaki beharko du, ebatzen arrazoituaren bidez, aurrez hautagaiak esateko duena entzun eta gero.

Izangaiak(ek) praktikaldia gaitzen ez badu(te) edo/eta praktikaldirako izendatzea proposatu den(iren) izangaiak(ek) kargua hartu ez du(t)enean, prozesuan puntuazioa altuen izan duen hurrengo izangaia izendatuko da praktikaldirako, betiere behar den dokumentazioa emandako epean aurkeztuko balu, lehen izangaiarekin jarraitutako prozesu berari jarraituz.

Oinarri honek zehaztutako epean eta moduan lanpostua aukeratzeko ez duten hautagaiek galdu egingo dituzte hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondorioz lortutako eskubideak.

Hamaikagarrena. Gorabeherak

Oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan, Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko.

Hamabigarrena. Lan-poltsa

Lanpostua eskuratu ez baina oposizioa gainditu duten hautagaiekin lan-poltsa bat osatuko da, udalean administrari edo administrari laguntzailea plaza(k) aldi baterako betetzeko premiei erantzuteko edo udalean profil horrekin egon daitezkeen kontratazio-premiei erantzuteko.

Lan-poltsa hau indarrean sartuko da udalak ebatzen duenetik aurrera.

Lan-poltsak urtebeteko balioa izango du –indarrean jartzen denetik kontatzen hasita–, baina urtez urte luzatu ahal izango da gehienez ere beste lau urtez, baldin eta Antolakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakoa erabakiko ez balu.

Udalak lan-poltsen funtzionamendurako indarrean dituen arau eta erabakiak aplikatuko dira. Halaber, aldi baterako izaerarekin kontratatutak izateko legezko mugak ere aplikatuko dira.

Hamahirugarrena. Inpugnazioak

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.

Hamalauugarrena. Dokumentazioa itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta hiru (3) hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

Hamabosgarrena. Arau osagarriak

Oinarrietan jaso ez diren kasuetarako, hautatze-prozesu honek ondorengo lege hauetan ezarritakoa beteko du:

- 1.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onesten duena;
- 2.- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena;
